

7. AKTA

2001eko maiatzaren 21ean ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

Pasaiaiko Hirian eta bertako Udaletxean, bi mila eta bateko maiatzaren hogeita batean, Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian, Joseba Belaustegi Cuesta Behin Behineko Idazkaria bertan delarik, hurrengo zinegotziak bildu dira:

Joseba Portugal Arteaga j.
Rikardo del Pozo Gil de Albornoz j.
Obdu Lorenzo de Dios a.

araz kurtsatu eta publikatu den deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko. Ezin etorria agertu du Anjel Ouviaña Vidal jaun zinegotziak.

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordea legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 9:00etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekinez.

1.- Aurreko batzarraldiko akta irakurri eta onartzea: 6. zka., 01-05-2.

Bertakoen kontsiderazioan jarririk atalburuan aipatzen den akta, hurrengo zuzenketak egin dira:

- 9. puntuan, “redistribución” dioen lekuan jarri behar da: “restitución”.

Halaber ezabatu da puntu horretako azken paragrafoa: “Ello no obstante ... salida al asunto”.

Aipatu zuzenketak egin eta ezarririk erabaki da dagokion Akta Liburuan transkribatzea.

2.- Kontu-fakturen berri ematea: 5/1 zka.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea 5/01 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda HOGEITA HAMALAU MILIOI ZAZPIEHUN ETA HAMABOST MILA SEIEHUN ETA HOGEITA ZORTZI (34.715.628,-) PEZETAKOA, nahiz eta 18. orrialdean eta 800.000.2001 zka. duen fakturan esaten duen: “Trintxer Kulturala” eta esan behar lukeen: “Trintxer Elkarte”.

3.- Udal-langilearen kilometro-kopurua.

Ikusirik Joan Markos Oneka Labiano udal-enplegatuak aurkeztutako idazkia, non eskatzen duen 2001eko urtarril, otsail eta martxoko kilometrajeen inporteen diferentzia ordaindua izan dakiola, abenduaren 19ko 267/00 Dekretuko igoeraren arabera, otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren bigarren

modifikazioarenez, zerbitzu-ordainketak direla eta, E.F.A.P.E.B.A.E.-ko indarreango Laugarren Xedapen Iragankorreko Seiaren arabera.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

JOAN MARKOS ONEKA LABIANO udal-enpleguari 11.172,- pezeta ordaintzea zerbitzuak direla eta indemnitazioen diferentziaren kontzeptuan, ondorengo zehaztasunaren arabera:

- Urtarrilean egindako kilometrajea:
868x4,-pta./km (diferentzia).....3.472,- pta.
- Otsailean egindako kilometrajea:
888x4,-pta./km (diferentzia).....3.552,- pta.
- Martxoan egindako kilometrajea:
1.037x4,-pta./km (diferentzia).....4.148,- pta.

—————
GUZTIRA.....11.172,- pta.

=====

4.- 5. ziuertagiria: “San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide Hiri Eremua berriro hiritartzea”.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea “San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide Hiri Eremua berriro hiritartzea” obraren 5. ziuertagiria, Joan Karlos Lapazaran Izargain (Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea) jaunek luzatua, CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A. enpresa kontratistaren alde, HAMALAU MILIOI LAUREHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA BI (14.488.322,-) pezetakoa. Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko D-943/00 Disposamenduaren kargura.

5.- 6. ziuertagiria: “Ulia etorbidea eta Azkuene kalea lotzeko bidea”.

Gobernu Batzordeak, Udal Aparejadoreak aldeko txostena aurrez emanik, erabaki du ontzat ematea “Ulia etorbidea eta Azkuene kalea lotzeko bidea” obraren 6. ziuertagiria, Eduardo Satostegi Obren Zuzendari jaunak luzatua, CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A. enpresa kontratistaren alde, SEI MILIOI LAUREHUN ETA ZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI (6.407.857,-) PEZETAKOA. Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko D-824/00 eta D-825/00 Disposamenduen kargura.

6.- Herriko jaietarako gastu aurrerapena.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea Alkate jaunak 2001eko maiatzaren 9an egindako hurrengo proposamena, Herriko Jaietarako gastuen dirua aurreratzeko:

- PASAI SAN PEDROKO
JAI BATZORDEA.....4.313.178,- pat.
- PASAI DONIBANEKO
JAI BATZORDEA.....4.215.620,- pta.
- PASAI ANTOKO
JAI BATZORDEA.....6.243.242,- pta.
- TRINTXERPEKO
JAI.BATZORDEA.....5.427.893,- pta.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-507/01 Baimenduaren kargura.

7.- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak aldatzea.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Departamenduko Arduradunak 2001eko maiatzaren 3an aurkeztutako proposamenak, 1/01 zka. proposamenari dagozkion Larrialdi Sozialeko Laguntza Ekonomikoak aldatzeaz, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- 1/01 zka. daraman proposamenari dagozkion Laguntzak modifikatzea, Gobernu Batzorde honek 2001eko otsailaren 26ko batzarraldian onartua, espedientearen agertzen diren onuradunena, beroriengan eman diren aldaketak direla eta, dagozkien espedienteetan seinalatzen diren kantitateak anulatuz.

BIGARREN.- Aipatu inportek Larrialdi Sozialera itzuliak izan daitezela.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzailtzako Departamenduari ematea.

8.- Udalaren mende dauden Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Departamenduko Arduradunak 2001eko maiatzaren 14an aurkeztutako proposamena eta Udalaren mendeko Gizarte Larrialdiko onuradunen zerrenda, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientearen agertzen diren onuradunen Laguntzak, 1.519.237,- pezetako inportez. Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-525/01 Baimenduaren kargura.

9.- Foru Aldundiaren mende dauden Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Departamenduko Arduradunak 2001eko maiatzaren 14an aurkeztutako proposamena eta Diputazioaren mendeko Gizarte Larrialdiko onuradunen zerrenda, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientearen agertzen diren onuradunen Laguntzak, 4.485.624,- pezetako inportez. Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-524/01 Baimenduaren kargura.

10.- Hiritartze ekimenentzako laguntzak.

Ikusirik ANA M^a INTXAUSTI ENOLAZA andreak Pasaia udalerrri honetako Ulia etorbideko 21eko Jabekideen izen eta ordezkartzan egindako eskaera, hiritartze ekimenen programaren barruan subentzioa jasotzeko, Jabekidetzak fatxada konpontzen egindako obren kontzeptuan, 2000ko maiatzaren 31an emandako lizentziaren arabera.

Kontuan izanik 2001ean Ordenantza Fiskalen arabera, Eraikuntza eta Obren Zergaren %50aren bonifikazioa daukatela kanpo aldeko elementu amankomunak berrabiltzeko obrek eta udalerrri osoan dauden etxebizitzetan igogailuak jartzeak, honetaz jadanik eskatzaileak onurak jasoak baititu.

Ikusirik halaber edifikazioa ez dagoela Herriko Gune Historikoan.

Ikusirik Udal Aparejadoreak 2001eko maiatzaren 3an emandako txostena, non aditzera ematen duen hasieran aurkeztutako 12.246.407,- pezetako aurrekontua 14.205.637,- pezetara igo dela, beti ere edifikazioaren elementu amankomunei dagozkienak.

Honela bada, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Hiritartze Ekimenari Laguntza eskaera ukatzea akordio honetako zioen agerpenean azaldutako arrazoiak direla eta, ANA M^a INTXAUSTI ENOLA andreaki Pasaia udalerrri honetako Ulia etorbideko 21eko Jabekideen izen eta ordezkartzan.

BIGARREN.- Akordio honen berri Errenta eta Exakzioen Departamenduari Eraikuntza eta Obren Zergaren likidazio osagarria burutu dezan.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

11.- Obra txikietarako lizentzia: Eskalantegi, 3.

Ikusirik JOAKIN SISTIAGA ARTOLA jaunak Pasaia udalerrri honetako Eskalantegi kaleko 3ko Jabekideen izen eta ordezkartzan egindako obra-lizentziaren eskaera, aipatu eraikinaren fatxadan obra txikiak egiteko.

Ikusirik Udal Aparejadoreak 2001eko otsailaren 21ean luzatutako txosten teknikoa, non ezezkoa emanez informatzen den Ordenazioz Kanpo deklaraturik dagoen finka desjabetzeko balioa hazi egingo luketelako obra horiek.

Ikusirik Hirigintzako Teknikariak 2001eko otsailak 26an emandako ebazpen-proposamena.

Kontuan izanik, ordea, Arau Subsidiarioetan aurreikusitako ordenazio berria burutzea ez dela ikusten epe ertainean.

Honela bada, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Eskaturiko obra-lizentzia ematea Hirigintzako zerbitzu teknikoek horretarako ezarriko dituzten baldintzak betetzekotan eta interesatuari behar bezala jakinaraziko zaizkionak.

BIGARREN.- Halaber emango zaizkio jakitera interesatuari Errenta eta Exakzioen Departamenduak likidatuko dituen udal-eskubideak.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

12.- Obra-kontratua esleitzea: "San Juan kaleko 114. zenbakian dagoen inmueblea eraberritzea"

Ikusirik 2000ko abenduaren 26an, Gobernu Batzordeak erabaki zuela ontzat ematea "San Joan kaleko 114. zenbakian dagoen inmueblea eraberritzea" obren kontratazio-espeditentea, Monika Benko Beobide eta Kristina Arkauz Alzola andre Arkitektoek luzatua eta enkante-izapide irekia egiteko esleipen-prozedura ireki dela kontuan hartuta.

Kontuan izanik lizitatzailerik ez dela izan, Gobernu Batzordeak 2001eko otsailaren 26an erabaki zuen esleitu gabe uztea kontratazioa eta kontratua publikitaterik gabeko prozedura negoziatuz esleitzea.

Inbitazioa eginik JAVIER ARAMBURU, IGNACIO ARAMBURU, KOBAY DEKONS, S.L., G.T.E., CONSTRUCCIONES OTAKA, S.L., BIOD ETXEGINTZA, S.L., ALBAÑILERÍA ECHAVE eta ALBAÑILERÍA MARIEZKURRENA, eskaintza egin duen bakarra BIOD ETXEGINTZA, S.L. izan da, zeinak obrak 20.187.938,- pezetako prezioan egitea eskaini baitu.

Ikusirik Udal Aparejadoreak 2001eko maiatzaren 9an luzatutako txosten teknikoa, non proposatzen baitu "San Joan kaleko 114. zenbakian dagoen inmueblea eraberritzea" obren esleipena BIOD ETXEGINTZA, S.L.-ri egitea 20.187.938,- pezetako kantitatez.

Honela bada, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Pasaia udalerrri honetako "San Joan kaleko 114. zenbakian dagoen inmueblea eraberritzea" obraren kontratua BIOD ETXEGINTZA, S.L. enpresari esleitzea 20.187.938,- pezetako kantitatean.

BIGARREN.- Adjudikatariari errekeritzea akordio honen notifikazioa egin eta hurrengo egunetik hasita HAMABOST LANEGUNEN epean egin ditzala hurrengo aktuzioak: behin betiko bermea jartzea, lizitazio hau Buletin Ofizialetan iragartzea ordaintzea eta baita eguneroko prentsakoak ere, izango balira.

HIRUGARREN.- Udaletxera etor dadila kontratua dokumentu administratiboan formalizatzeko, oharraraziz kontratistaren erruz kontratua formalizatu gabe geratuko balitz, Udalak erabaki dezakeela haustea interesatuarekin aurrez hitz egin ondoren kalte-ordainak abonatu.

LAUGARREN.- Alkate jauna gaitzea akordio hau betetzeko beharrezko ebazpen eta akordioak har ditzan.

13.- Obra-kontua esleitzea: “San Juan kaleko 58. zenbakian dagoen lokala Gizarte Zerbitzuetarako gaitzea”.

Ikusirik 2001eko abenduaren 26an Gobernu Batzordeak erabaki zuela ontzat ematea “San Juan kaleko 58. zenbakian dagoen lokala Gizarte Zerbitzuetarako gaitzea” obren kontratazioaren espediente, Iñaki Ormazabal Azkoitia Udal Arkitekto jaunak erredaktatua eta enkante-izapide irekia egiteko esleipen-prozedura ireki dela kontuan hartuta.

Kontuan izanik lizitatzailerik ez dela izan, Gobernu Batzordeak 2001eko otsailaren 26an erabaki zuen esleitu gabe uztea kontratazioa eta kontratua publizitaterik gabeko prozedura negoziatuz esleitzea.

Inbitazioa eginik JAVIER ARAMBURU, IGNACIO ARAMBURU, KOBAY DEKONS, S.L., G.T.E., CONSTRUCCIONES OTAKA, S.L., BIOD ETXEGINTZA, S.L., ALBAÑILERÍA ECHAVE eta ALBAÑILERÍA MARIEZKURRENA, eskaintza egin duen bakarra BIOD ETXEGINTZA, S.L. izan delarik, zeinak obrak 6.481.640,- pezetako prezioan egitea eskaini baitu.

Ikusirik Udal Aparejadoreak 2001eko maiatzaren 9an luzatutako txosten teknikoa, non proposatzen baitu “San Juan kaleko 58. zenbakian dagoen lokala Gizarte Zerbitzuetarako gaitzea” obren esleipena KOBAY DEKONS, S.L.-ri egitea 6.481.640,-pezetako kantitatez.

Honela bada, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Pasaia udalerrri honetako “San Juan kaleko 58. zenbakian dagoen lokala Gizarte Zerbitzuetarako gaitzea” obraren kontratua KOBAY DEKONS, S.L. enpresari esleitzea 6.481.640,-pezetako kantitatean.

BIGARREN.- Adjudikatariari errekeritzea akordio honen notifikazioa egin eta hurrengo egunetik hasita HAMABOST LANEGUNEN epean egin ditzala hurrengo aktuzioak: behin betiko bermea jartzea, lizitazio hau Buletin Ofizialetan iragartzea ordaintzea eta baita eguneroko prentsakoak ere, izango balira.

HIRUGARREN.- Udaletxera etor dadila kontratua dokumentu administratiboan formalizatzeko, oharraraziz kontratistaren erruz kontratua formalizatu gabe geratuko balitz, Udalak erabaki dezakeela haustea interesatuarekin aurrez hitz egin ondoren kalte-ordainak abonatzuz.

LAUGARREN.- Alkate jauna gaitzea akordio hau betetzeko beharrezko ebazpen eta akordioak har ditzan.

14.- Obra-kontratua esleitzea: “Arrokaundieta Aterpetxeko jolas-gela osagarria egokitzea”.

Ikusirik 2001eko abenduaren 26an Gobernu Batzordeak erabaki zuela ontzat ematea “Arrokaundieta Aterpetxeko jolas-gela osagarria egokitzea” obren kontratazioaren espedientea, Edurne Aperribai Ulazia, Jesus Berasategi Otxoa eta Karlos Callejos González jaun-andre Arkitektoek erredaktatua eta enkante-izapide irekia egiteko esleipen-prozedura ireki dela kontuan hartuta.

Kontuan izanik lizitatzailerik ez dela izan, Gobernu Batzordeak 2001eko otsailaren 26an erabaki zuen esleitu gabe uztea kontratazioa eta kontratua publizitaterik gabeko prozedura negoziatuz esleitzea.

Inbitazioa eginik JAVIER ARAMBURU, IGNACIO ARAMBURU, KOBAY DEKONS, S.L., G.T.E., CONSTRUCCIONES OTAKA, S.L., BLOK ETXEGINTZA, S.L., ALBAÑILERÍA ECHAVE eta ALBAÑILERÍA MARIEZKURRENA, eskaintza egin dute KOBAY DEKONS, S.L. (lizitazio-prezioa gaituz) eta CONSTRUCCIONES OTAKA, S.L. enpresek, azken honek 14.968.950,- pezetako kantitatez egitea obrak.

Ikusirik Udal Aparejadoreak 2001eko maiatzaren 9an luzatutako txosten teknikoa, non proposatzen baitu “Arrokaundieta Aterpetxeko jolas-gela osagarria egokitzea” obren esleipena CONSTRUCCIONES OTAKA, S.L.-ri 14.968.950,- pezetako kantitatez.

Honela bada, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Pasaia udalerrri honetako “Arrokaundieta Aterpetxeko jolas-gela osagarria egokitzea” obraren kontratua CONSTRUCCIONES OTAKA, S.L. enpresari esleitzea 14.968.950,- pezetako kantitatez.

BIGARREN.- Adjudikatariari errekeritzea akordio honen notifikazioa egin eta hurrengo egunetik hasita HAMABOST LANEGUNEN epean egin ditzala hurrengo aktuzioak: behin betiko bermea jartzea, lizitazio hau Buletin Ofizialetan iragartzea ordaintzea eta baita eguneroko prentsakoak ere, izango balira.

HIRUGARREN.- Udaletxera etor dadila kontratua dokumentu administratiboan formalizatzeko, oharraraziz kontratistaren erruz kontratua formalizatu gabe geratuko balitz, Udalak erabaki dezakeela haustea interesatuarekin aurrez hitz egin ondoren kalte-ordainak abonatu.

LAUGARREN.- Alkate jauna gaitzea akordio hau betetzeko beharrezko ebazpen eta akordioak har ditzan.

15.- Obra kontratatzeko espedientea onartzea: “Azkuene kaleko 42. zenbakian egin beharreko konponketa eta finkatze-lanak”.

Pasaia udalerrri honetako “Azkuene kaleko 42. zenbakian egin beharreko konponketa eta finkatze-lanak” obraren kontratazio-espedientearen berri emanik.

Ikusirik KEMEN, E Y P. S.L.-k erredaktatutako proiektua eta baita ere Klausula Administratibo Berezien Plegua aurreko obra kontratatzeko eta baita Idazkaritza eta Kontuhartzaitzaren txostenak.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Pasaia udalerrri honetako “Azkuene kaleko 42. zenbakian egin beharreko konponketa eta finkatze-lanak” obraren proiektua ontzat ematea, Ingeniería KEMEN, E. Y P., S.L. enpresak erredaktatua.

BIGARREN.- Ontzat ematea obren kontratazio-espedientea 16.445.174,- pezetako aurrekontuarekin (98.837,49 euro) BEZ barne.

HIRUGARREN.- Gastua A-1797/00 baimenduaren kargura onartzea.

LAUGARREN.- Kontratua prozedura irekiz eta enkante-esleipenez burutzea.

BOSGARREN.- Kontratua arautuko duten Baldintza Ekonomiko-Administratibo Berezien Plegua ontzat ematea.

SEIGARREN.- Alkate jauna gaitzea akordio hau bete ahal izateko sinadura eta beharrezko jesticak burutzeko.

16.- Ondare-erantzukizuneko hainbat erreklamazioa.

A) Joan Manuel Aldaz Areal jaunak egindako kalte-erreklamazioa 2001eko-4-7an zegoen haizeteak Arraunlari kalean udal-hesiek SS-5857-BB ibilgailuan eragindako ustezko kalteak direla eta.

Ikusirik JOAN MANUEL ALDAZ AREAL Udal honetako Udaltzain jaunak egin erreklamazioa, non eskatzen duen ordainduak izan dakizkiola udalerrri honetan estropadak ospatzeko seinalizaziorako jarritako hesi batek jota bere jabetzako ibilgailuan eragindako kalteak konpontzeko izandako gastuak, 56.763,- pezetako faktura ekarri duelarik.

Ikusirik Udaltzaingoaren espedientean agertzen diren parteak eta Zerbitzu-buruak 2001eko apirilaren 25ean emandako txostena, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- JOAN MANUEL ALDAZ AREAL jaunaren eskubidea onartzea, hots, Udal honek kalte-ordainak abonatu behar dizkiola 2001eko apirilaren 7an udal-hesiak jota bere ibilgailuan eragindako kalteak direla, ekarri eta espedientean agertzen den fakturaren arabera 56.763,- pezetako kantitatez.

BIGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzaitzako departamenduari ematea aurreko kalte-ordaina abonatua izan dadin.

B) JOSE LUIS CABO VILLEGAS jaunak formulatu kalteen erreklamazioa, joan den 2000ko urrian ibilgailu ofizialaren atolian hesiak kargatzen ari zela betaurrekoen armazoa ustez puskatu zuelako.

Ikusirik JOSE LUIS CABO VILLEGAS jaun Udaltzainak egin eskaera, non eskatzen duen 14.000,- pezeta ordainduak izan dakizkiola betaurreko graduatu batzuen armazoa hausteagatik, dirudienez 2000ko urrian ibilgailu ofizialaren atolian hesiak kargatzen ari zela puskatu zitzaizkiolako.

Kontuan izanik ez duela alegatu ezta demostratu ere hori udal funtzionamenduagatik gertatu zitzaioela eta alde bat utzi gabe eskatzailearen portaera izan zitekeela hausketaren arrazoia, Gobernu Btzordeak

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Aurreko eskaera gaitzestea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsoekin.

C) Maribel Abalia andreak egin erreklamazioa 2001eko apirilaren 28an Pasaiaiko Gure Zumardian jarritako bankuetako erretxinarekin bere jantziak kaltetzeagatik.

Ikusirik Maribel Abalia andreak egin eskaera 2001eko apirilaren 28an Pasaiako Gure Zumardiko bankuan eseri zela bere bilobaren arropa erretxinaz zikinduz eta baita berea ere, Tinategiko faktura ekarri duelarik 1.500,- pezetakoa.

Gobernu Batzordeak

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Eskatzaileari 1.500,- pezeta abonatzea zerbitzu publikoak gaizki funtzionatzeagatik berak izan dituen kalteen kontzeptuan eta, zehazki, aipatu Plazan jarritako egurrezko bankuetako erretxinak egindakoak, jadanik ezagunak Udal honentzat.

BIGARREN.- Akordio honen berri Obra eta Zerbitzuetako departamenduari intzidente hauek ekiditeko beharrezko neurriak har ditzan.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsioekin.

D) Groupama Aseguru Konpainiak egin erreklamazioa dirudienez SS-6711-BC matrikula duen ibilgailuan udal edukiontzi batek eragindako kalteak direla eta hau haizeak bultzatuta Esnabide kalean, 2000ko abenduaren 30ean.

Ikusirik espedientean ez dela agertzen erantzunik Udal honek kontratatu eta Udalak berak bidalitako txostenak direla eta, gai hau mahai gainean geratu da Aseguru Konpainiak erantzun zain.

E) Lourdes Mariezkurrena Ezkurra andreak eta bestek egin erreklamazioa 1998ko abuztuaren 12an JJ. Otaegi plazako behebaruan dagoen garajearen eragindako kalteak direla, udal enplegatuak iragazkaitz lanak egiten ari zirenean.

Ikusirik aurreko espedientea eta halaber Udal Zerbitzuburuak 2001eko maiatzaren 16an egindako txostena.

Kontuan izanik gertaera hauen inguruko zirkunstantzia bitxiak, eta zehazki, VITALICIO SEGUROS-ek izan duen postura, entitate honekin baitzuen Udalak erantzukizun zibila kontrataturik, zeinak baitio 2001eko urtarrilaren 25eko idazkiaren bidez, kalte hauek ez daudela estalirik lehenago kontratatu zen polizarekin.

Gobernu Batzordeak

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Partzialki onartzea eskaera, hau da, gastuen %50 ordaintzea dagokion aurrekontuko kontsignazioa baino lehen.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

F) Francisco Alonso Frontela jaunak egin erreklamazioa, dirudienez Topoaren Arkupeetan erortzeagatik 2001eko martxoaren 26an, Zumalakarregi kalearen eta Maiatzaren Lehena plazaren artean sareska bat irtenda zegoelako.

Ikusirik erreferentziako espedientea, eta bertako txostenak, eta baita Zerbitzuen departamenduaren eta Udaltzaingoarenak ere.

Kontuan izanik frogatua dagoela Francisco Alonso Frontela jauna 2001eko martxoaren 26an oinez zebilela Topoaren Arkupeetan oztopatu eta sareska batekin erori zenean, sareska Zumalakarregi kalearen eta Maiatzaren Lehena plazaren artean bere lekutik irtenda egonik.

Kontuan izanik, hala ere, ez dagoela frogatua betaurrekoak puskatu zituela eta honen abonoa erreklamatzeko duela, Gobernu Batzordeak

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Francisco Alonso Frontela jaunari 49.000,- pezeta ordaintzea baina aurrez frogatu egin behar du betaurrekoak erabat hondatu zitzaizkiola, eta bestela, balioaren diferentzia deskontatu egingo zaio.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

Gaizerrendatik at, ontzat ematen dira hurrengo aurrekontuak eta proiektua ikastetxeentzat dagozkien subentzioak eska ditzaten:

17.- Herriko hainbat Ikastetxerentzat proiektuak eta aurrekontuak onartzea.

Ikusirik udal-zerbitzu teknikoek egindako proiektuak eta aurrekontuak Herriko hainbat Ikastetxe egokitu eta hobetzeko eta dagozkion subentzioak eskatzeko, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- KARMENGO AMA HERRI IKASTETXEAN Leiho Handiak ordezkatzeko” proiektua eta aurrekontua onartzea, inportea 9.500.400,- pezetakoa izanik (BEZ barne).

BIGARREN.- KARMENGO AMA UDAL IKASTETXEAN “Areto Polibalentea Eraikitzea” obrari buruzko proiektua eta aurrekontua onartzea, inportea 6.542.400,- pezetakoa izanik (BEZ barne).

HIRUGARREN.- Pasai San Pedroko POBLADOko Udal Ikastetxean “Fibrozeamentua panelka duen Teilatua Ordezkatzea” obrari dagozkion proiektua eta aurrekontua onartzea, 5.559.300,- pezetako inportez (BEZ barne).

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 14:30etan, batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.